



EGOERA

KOKAPEN OROKORRA

Kirol kontzeptu mugatu batetik mugitzen den gizarte aktibo bat sustatzera pasatzea dugu xede. Gizakiaren baitan dago mugitzea eta gure asmoa herritar aktibo, eraldatzaile, emantzipatzaile eta kritikoa sustatzea bada, gure kirol politika bide horretatik joatea baino ez du, eta kirola gizarte eraldaketarako oso aintzat hartu behar dugun tresna da, herritarrak atxikitzeko, hunkitzeko, erakartzeko, inplikatzeko eta eraldatzeko duen gaitasunagatik. Eta Euskal Herriko izaeran eta kulturaren duen pixuagatik.

Eraldaketa piztu, puztu eta poztu behar dugu. Balioen berreskuraketarekin hasi behar dugu. Eta EH Bilduk indartu, lehen leerroan jarri nahi dituen baloreen artean, aurkitzen da: AKTIBOA. Pertsona aktiboa, ekimena duena, aldarte bizikoa eta bere jardutean bizipozez diharduena. Baina, aktibo izateko modu nagusietako bat fisikoki aktiboa izatea behar du.

Gure marko politiko -ideologiko berrian pertsonak, herritarrak, denak bere berariazko ezaugarri eta desberdintasun guztiekin, bere indibidualtasunaren osotasunean hartu behar ditugu. Horretarako, bide bakarra da gure ohiko bizitza ohituretan jarduera fisikoa txertatzea.

Kirola, jarduera fisikoa, bizitza aktiboa, eta abarrek zehaztapen kontzeptuala behar dute. Kirolaren ikuspegi zabala proposatzen dugu. Jarduera fisikoa gure bizitzetan txertatzea proposatzen dugunean giza-mugimenduaren adierazpen guztiak hartzen ditugu: Arraunean entrenatzen den kirolaria, kiroldegira igeri egiten doan herritarra, bizikletaz lanera doan langilea, egunero paseatzera irten dena edota aisialdirako baratza duena. Guretzat, denak izango dira helburu, denak izango dira baleko.

Nazio eraikuntzan eta estatu berri baten urratsetan, nabarmen, une batetan, erabaki beharko dugu, zintzo eta leial, eguneroko tristurak eta gabeziak gure selekzioaren arrakastekin mozkortuta ase nahi ditugun, ala; herritar aktibo izanda dakarkigun bizipoz mugagabetik joan nahiko dugun. Kirola soilik modu eksklusibo eta mugatuan politizatuko dugun; ala, pertsonak ardatza hartuta, gure buruak aktibatuko ditugun. Aukera gure esku dago.

Gure ustetan, garaia da, pertsonak kudeaketaren ardatz eta kudeatzaile bilakatzeko. Pertsona denak, beren berariazko premiekin. Biztanleriaren ezaugarri motore, sentzorial, sozio-ekonomiko zein kulturalak anitzak dira. Kirol politika berriak aniztasunaren tratamendu berezi eta berezitua behar du txertatu.

Horretarako, gure lan filosofian eta moldean aldatu behar dugu. Administrazioa maila guztietan, eta tokian tokian dagoen kirol organoaz haratago, sail guztien jardunean txertatu behar da mugimenduaren aldeko kultura irizpide bateratua eta integrala. Alor guztietan aktibatu behar dira estrategiak herritarrek bizitza aktibo batean murgiltzeko topatzen dituzten oztopoak identifikatu eta hura gainditzeko baliabideak emateko. Azken finean, kirola eskubide bilakatu nahi dugu. Horrek guztiak, metodologia berri bat dakar, zeinetan sektore arteko mahaiak eta departamentu artekoak ezinbesteko bihurtzen diren. Erakundearen kudeaketa eredu aldaketa dakar, non administrazioaren kudeaketa ekonomikoa birmoldatu beharko den, besteak beste; hainbatetan, partida intersektorialak berrantolatuz eta honela guztiz dispertsatuak eta ezgai bilakatzen ditugun baliabideak, hobetuz, eta eraginkorrak bilakatzeko eta berrerabiltzeko.

GAUR EGUN

Egungo gure gizartea krisian baino, gizabanakoa bera dago krisian. Aberastasun metaketa mugagabea oinarritutako ekonomiak etengabeko giza- baloreen hustuketa dakar. Obedientzia itsua, hausnarketa kritiko gaitasun ahula, frustrazioa eta bizi-aldarte apalak dira gure eguneroko ilunak. Hortik gure nahia eta xedea herritar aktiboak bilakatzearena, eraldaketa piztuz, puztuz eta poztuz, bestelako baloreak indartuz. Eta kirola ere ez da sistematik salbuetsia geratu; Ildo horretan garatzen joan da kirol egitura eta jarduera bera, lortu den emaitza ondorengo izanik: kirol eragileetan, organoetan zentratzea, eta ez kirolarian, pertsonan; baliabideen dispersioa eta ez eraginkortasuna, sortzen joan diren funtzio definitu eta argirik gabeko egitura bikoiztuak; azpiegitura gehiegikerian jaustea, jarduera eta pertsonak bigarren plano batean utziaz. Azkenean, hiru herrialde dituen Euskal Autonomi Erkidegoa bezalako lurralde txiki batean, hiru herrialde hiru kirol eredurekin aurkitzen garela esan genezake; elkarri bizkar emanda, elkarlanerako zailtasunekin eta erakunde

komunetik irizpideak bateratzeko ezintasunean.

Kirola, EAEn, estatutu autonomian, eskumen eksklusibo bezala jasota dago; lehenbizi, 88ko kultura fisikoaren legeaz eta ondoren, 98ko kirolaren legearekin. Hala ere, gure buruari ditugun eskuduntzak mugatu dizkiogu eta ez gara gai izan hauek bere osotasunean garatzeko.

Legean ezarritako eskumen, eskubide eta betebeharrak luzeagoak izan arren; funtsean eta muinean, kirolaren garapena honela egin da: Eusko Jaurlaritza, lege garapenez, erregulazioaz eta errendimendu gorenaz arduratu da. Eskola-kirola, foru-organoen esku geratu da eta Guztiontzako -Kirola eta azpi-egituren eraketa eta kudeaketa, udalerrietan.

Ondorioz eta arestian aipatu bezala, Lege berdin batek lurralde garapen desberdinak izan ditu; eta ondorioz, kirol-alor berdina desberdin antolatu da lurralde bakoitzean. Honela, ez dago kirol azpiegituretarako armonizaziorik, ez dago eskola-kirol eredu homogeneousik.

Besteak, beste, gabeziak ere aurkitzen ditugu:

Berdintasun ikuspegian. Egungo kirolaren alor guztiak matxistak dira. Emakumeek gizonezkoek baino kirol gutxiago egiten dute. Kirola egiten duten emakumeek saio gutxiago eta motzagoak egiten dituzte gizonezkoek baino. Kirol erakundeen kudeaketetan, nagusi, gizonezkoak dira. Eta baliabideen antolaketan, gizonak, jaun eta jabe. Eta oraindik orain, administrazio egituretan ez da genero-ikuspegiko kudeaketarik egiten, ez eta exijitzen ere.

Aniztasunaren trataeran. Jarduera fisiko eta kirolaren praktikara pertsona guztiak, dena direlarik hauen ezaugarriak, sarbidea erraztea, aukera berberak izatea kalitatezko praktika burutzeko. Finean, herritar aktibo bilakatzeko.

Gobernantza ereduan. Tokiko udal gobernanzatik autonomikoraino, kirolaren administrazioa, zerbitzuak ematen egin da. Alegia, herritarrentzat herritarrekin gabe garatu da kirol-politika.


Kirolaren esanguran. Kirolaren kontzepzio motza du administrazioak, eta ondorioz, ez dago herritar aktiboen ikuspegiak ekar eta erakar dezakeen kudeaketa mota berri eta berritzailearen zantzurik ikusten.

Baina denak ez dira gabeziak, eta indar guneak ezin ditugu ahanzi eta gogoraraztea ezinbestekoak ditugu: hamarkadetan eraiki den kirol militante eta bolondresen sarea; gure herrian kirolerako oro har, dagoen zaletasuna; kohesio sozialerako guztiz eraginkorra eta baliagarria bilakatu dugula kirola; euskaren normalkuntzarako pizgarri eta eraginkorra; ohitura osasuntsuak bere integritasunean eskuratzen lagundu eta errazten duen jarduera fisikoa garatzeko gai izan garela. Hor ditugu ere egin dira urrats batzuk, Osasun sailarekin elkarlanean.

NEURRIAK

Ondorioz, gure kirol politika mugimenduaren kultura eta herritar aktiboak sustatzea izango da, euskal kirol eredu berezkoa eta nazioartean marka propioa izango duena eraikiz. Horretarako, kirolean lidergo instituzionala gauzatzuz, berariazko kirol politikak garatzeko. Aldaketa berebizikoa da, kirola sustatzeko modu isolatuan jardun baino, aliantza estrategikoak egingo ditugu bai kirol erakunde eta baita, kirola lehenbiziko batean helburu ez duten, erakundeekin ere. Beti ere, zeharkako ikuspegia integratuz gure politika eta ekimenetan eta jarduteko metodoan, alegia aipaturiko politikak garatzerako orduan: berdintasuna, hizkuntza, aniztasun funtzionala, osasuna, ingurumena, eta abar. Eta aniztasuna oso kontutan izanez, jarduera fisiko zein kirol praktikara sarbidea erraztuz, zailtasun bereziak dituzten kolektiboak.

Beraz, eta kontutan hartuta zein abiapuntutik, lur zorutik hasten garen abiatzen eta zein xede dugun helmuga. Norabide horretan, ondorengo erronka nagusiak jartzen dizkiogu gure buruari:

-  Kirol eskuduntzak bere osotasunean garatu, sendotu, eta finkatu.
- Nazioartearekin, Europarekin elkarlana garatu. Eta aliantza estrategikoak bilatu.
- Herritarrek jarduera fisiko eta kirol praktikaren ardatz bilakatu.
- Berariazko Euskal kirol Markoa definitu. Horretarako egitura eta antolaketa moldeen planteamendu eraginkorrak egokitu.
- Trebakuntza eta lerkuntza gure herri aktiboaren zutabe nagusia bilakatu.
- Herri-nazio marka eraiki eta zabaldu.

Sinetsiak gaude, eta konbikzioz diogu, lehengai bikainak baditugula marraztutako bideari eta ezarritako xedea lortzeko lanari ekiteko. Eta hurrengo atalean, erronka horiei heltzeko neurriak zehazten ditugu, dagoeneko horietako batzuek pasa den legegintzaldian proposatu izan ditugunak Gasteizeko legegintzaldian, eta gainerakoak datorren legegintzaldian bertan planteatuko ditugunak gobernuan baldin bagaude, edo eta gobernuan ez bagaude, legebiltzarretik, baina beti ere, modu eraikitzailean gure herria, erreferente bilakatu dadin baloreetan eraikitako gizarte aktibo bezala, eta berariazko kirol egitura eta marka propioa izateko. Gizabanakoaren buru, bihotz eta gorputz, bat eta bakarrean. Gure herriko pentsa arazle nagusiek esango luketen Sentitu, Pentsatu eta Ekin!

LEHENDAKARITZA Herritar eta herri aktiboaren erreferente. Kirola, lehendakaritzatik zintzilikatuko dugu, gobernua burua bitzita aktiboaren erreferente bilakatzeko.

Batetik, ardura maximoko ordezkari politikoa kirolaren buru legokeelako eta bestetik, bere jarduna bera sedentarismoaren aurkako adibide izango litzatekeelako: bileretara oinez edo bizikletaz joango litzateke, bilerak zutik edo paseatzen egingo litzuke, balio erantsi berezia luketen kirol-gertakarietan parte -hartu edota ordezkari goren gisa parte -hartuko lukeelako, ... zarenarekin hezten duzu, eta ez diozunarekin.

1

Gizarte aktibo baten komunikazio estrategia definitu eta garatuko genuke, Jaurlaritzaren komunikazio baliabide guztiekin (EITB barne). BAT Basque Team-ek goreneko kirol erakusgarri da, maiz, Euskadiko kirol nazio-marka izaten saiatu da. Gurean, eta herritar guztiak aintzat hartzen ditugun strategi berri honetan Euskal Herritarren Bizitza Aktiboaren nazio-marka garatuko dugu.

2

Jaurlaritzako sail guztiekin elkarlan eta lan bateraturako estrategia ezarriko dugu. Horretarako:

Lurralde Antolaketa eta mugikortasuneko sailarekin elkarlana

- Urbanismo aktiboa eta mugikortasun ez motorizaturako neurrien garapena
- Euskadiko bide ez motorizatuen Plan sektoriala definitu eta garatu. Euskal Herriko bide gorria.

- Ziklisten Euskal Plana
- Gobernuko sail desberdinekin batera, beste instituzio eta bizikletaren herrigintzan diharduten kirol eta zuzenean kirol ikuspegia ez duten kolektiboekin batera jarduteko mahai bat antolatuko genuke. Mahai horretatik aterako lirateke:
 - Ziklisten euskal behatokia garatzea litzateke.
 - Komunikazio kanpaina garrantzitsu bat errepideetako ziklista erahilketa sistematikoarekin amaitzeko.
 - Errepideko ziklismoko mapa garatu; zeinetan, puntu beltzak identifikatuko liratekeen. Identifikatu eta lehenetsiko lirateke zeintzuk errepideetan bide bazterrak bizikleta-errai bihurtu ahalko liratekeen eta ezin direnetan zeintzuk bazter-bidek garbiketa eta mantenimendua beharko luketen.
 - Garraio-bide publikoetan, desplazamendu ez motorizatuetarako araudiak garatu eta baliabideak ipini. Bizikleta eta irristaketa modalidadeak garraio publikoarekin elkartuta lortzen dira desplazamendu azkar, merke, jasangarri eta osasuntsuenak.
 - Modu ez motorizatuko politika zehatzak garatu: Lurralde Antolaketa eta mugikortasuneko sailarekin elkarlan:
 - Enpresekin langileak saritu (diruz, opor-egunetan,...) lanera modu ez motorizatu edo kolektiboan doazelako.
 - Eskolekin “eskola-bideak” egitasmoak abian ipini, zeinetan, esku-hartze integralen bidez, haurrak modu autonomoan eskolara joango diren.
 - Udaltzain, ertzain eta bestelako agenteen esku bizikleta ipini.

Ingurumena

- Natur Espazioetan kirol jardueren erregulazioa debekuaren aurrean
- Kirol Instalazioen auditoria energetikoa

Hezkuntza arautua

- Psikomotrizitatea Haur hezkuntzan eta Haurreskolak Partzuergoan txertatzeko ekimena hartuko dugu. Salto – salto gelatik haratago doan eskaintza da psikomotrizitatea. Irakasleen formakuntzatik hasiko ginateke.
- Heziketa Fisikorako ordu bat gehiago ezarriko dugu L.H eta D.B.H. Europako gainerako Herrialdeen parean jartzeko.
- Batxilergoan berriro nahitaezko ikasgai bilakatu behar da (iraganean izan zen bezala).
- Heziketa Fisikoa emateko espazioen azterketa. Eskolek dituzten kirol baliabide espazialen azterketa egin behar da. Zentro askotan ez dago HF curriculuma garatzeko gutxieneko espaziorik. Estalperik ote dagoen, udal instalazio edota beste zentroetako baliabideekin koordinatzeko azterketa bat egitea ezinbestekoa da.
- Eskola- Kirola Hezkuntza sailean txertatzea. Zentro bakoitzeko Heziketa Fisikoko saila izango da eskola-kiroleko kudeatzaile eta arduradun. Eskola publikoan, sail bakoitzari eskusiba orduak emango dizkio heziketa -fisikoko sailari eta kontzertatuetan, bestelako formulak aztertu eta garatu beharko dira.
- Euskal Etnomotrizitatea garatzea.
- Lehen Sorospena: desfibriladore semi- automatikoa erabiltzen eta oinarrizko bihotz birika berpizte ezagutzak nahitaezko eduki gisa txertatu behar dira curriculumean.

Osasuna eta Ongizatea. Patologia merkeena existitzen ez dena da; eta, beraz, aurrezaintzarako botikarik eraginkor eta merkeena bizitza aktibo bat izatea da.

- Alor soziosanitarioan, kronikoen estrategian, ikuspegi komunitariotik jarduera desberdinak txertatuko ditugu: osasun sustapen, prebentzio eta pluripatologiaren artapenean.
- Lan munduaren ergonomia aztertu eta hobetuko luketen teknikarien sarea osatu.
- Lan orduetako gorputz jarrerak eta dinamikak hobetu eta lan horiek konpentsatzeko jarduera fisikoa preskribituko lukete.
- Lehen “aktibili” zena, orain “mugiment” dena, egindakotik abiatuz, bere osotasunean estrategia osoa garatuko dugu.
- Familia-sendagileak “kirol-errezeta” prest edukitzeko, udalerriko kirol baliabideen gida batekin norberaren premietara egokituko litzatekeen “kirol-dosiak” administratzeko bideak irekiko ditugu.
- Tokiko fisioterapia zentroek udalerrietako kirol-zerbitzuekin elkarlanean aritzeko neurriak hartuko ditugu, beren baliabideak herritarrei eskaini eta patologia osteko bizitza kiroldegian edota kirol- jardueran jarraitzeko.
- Kirol federatuaren aseguru-etxean baitan eta osasun-publikoari paralelo, kirol-medikuntza dago. Azken finean, egitura bikoitz bat antolatu (eta ordaindu) egiten dute herritarrek. Egun bi kirol-osasun sistema hauek kontrajarrita bizi dira, gure proposamena: kirolarien osasuna (hein handienez) osasun-publikoaren baitan ipintzea eta sektore pribatuarekin adostea osasunetik interes pertsonaletara doazen zerbitzuak antolatzea (dietetika, tratamendu pertsonalak, errendimendu goreneko entrenamenduak,...).

3

Ondorengo Legeen eguneratze eta araudien egokitzapena lehenetsi eta burutuko genuke:

- Kirol Lanbideetan aritzeko legea errealitate bilakatu
- Kiroleko Dopinaren aurkako 12/2012 legea aldatu
- Euskadiko Kirolaren 14/1998 eguneratu
- Igerilekuen legea eguneratu
- Federazioen hauteskundeetarako araudia eguneratu

4

EAEko kirol egitura egokitu eta eraginkor bilakatuko dugu

- Dauden egituren eta baliabideen eraginkortasuna hobetzeko, dauden egituren eta funtzioen egokitzapena egingo dugu (Kirol Eskola, EKFB, CPT, Kirolene).
- Euskal Kirol Federazioen Batasunaren izaera eta eragin eremua berraztertu eta bere eraginkortasunari begira, kontrol eta ebaluazio formulak ezarri eta aplikatu.
- Kirol egitura eta sarea baliabidez hornituko dugu
- Interdepartamentalak eta intersektorialak ezinbesteko bilakatuko ditugu. Partida intersektorialak berrantolatuko ditugu, baliabideak hobeto kudeatu eta eraginkortasuna bilatzeko.

5

Kirol lehiaketaren euskal esparruaren garapena (EH Bilduren ekimenez onartua 2014ko otsailean).

-Ekintza Planaren(2014ko apirilekoa) gauzapena bizkortu; eta aztertu beste kirol modalitate batzuetara zabaltzea.

-Hitzarmenak sinatu eragile desberdinekin.

6

Eskola Kirola Hobetzeko eta hiru lurraldeetan bateratzeko lan ildoak abiatuko dugu

-Eskola kirola ereduaren hobekuntza eta zabalkuntza hiru herrialdeetan eman ahal izateko, hiru Foru Aldundiekin estrategia bateratuak eta iraukorrak adostea.

-125/1998 Eskola Kirolaren dekretua eguneratuko dugu, hiru Aldundi eta Hezkuntza sailarekin elkarlanean.

7

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientzien garapena eta ikerkuntzaren sustapena eta sakontzea

-EHUrekin, Araubide – Bereziko irakaskuntzekin eta Lanbide Heziketarekin elkarlanerako guneak sustatzea, hitzarmenen bitartez.

-Irakaskuntza hauetan garatzen diren formazio – planak, hezkuntza – curriculumak eta ikasketa mota desberdinak (teknikari eta goi mailako teknikari ikasketak, gradu ikasketak eta graduondoko ikasketak) jorratu ahal izateko, gure eragile diren erakundeekin elkarlana bideratzeko eta sustatzeko neurriak hartuko ditugu.

-Administrazio publiko desberdinen arteko elkarlanaren ondorioz, diru laguntza plan estrategiko bat zehaztu eta garatzeko lan ildoak irekiko dugu.

8

Euskal Kirol berezko ereduak eraikitzeko, giltzarriak diren egiturak aztertu eta egokitu.

Federazioak:

-Administrazio publikoaren ordezkari diren heinean, eta administrazio publikoaren diru edo baliabide laguntzak jasotzeko gutxieneko kudeaketa betebeharrak definituko ditugu eta eskatuko dizkiegu.

-Federazioen egitura aztertu eta egokituko dugu.Herrialde eta komunak diren federazioen arteko sarearen arteko harremanak eta funtzioak berrantolatzeak akordioa sustatuko dugu.

- Euskal federazioen eta euskal kirolarien partaidetza zuzena bilatuko dugu nazioarteko kirol egituretan.

-Espainiako markoarekiko mendekotasunak murriztu. Lizentzien kasuan, gure markora egokitutako irizpideetan sakonduz.






Klubak:

- Egunerokoari aurre egin diezaioten, baliabideak eskuratu eta elkarlanean aritzeko neurriak proposatuko ditugu, Tokiko erakundeekin elkarlanean.

-Bolondresgoa indartzeko eta laguntzeko neurriak identifikatu eta baliabideak definituko ditugu





Plan Estrategiko zehatz eta zuzenak egin eta garatuko ditugu, ondorengo kiroletan:

-  Kirol egokitua.
-  Ziklismoa.
-  Herri kirola.
-  Arrauna.
-  Euskal pilota.



Plan Estrategiko zehatz eta zuzenak egin eta garatuko ditugu, ondorengo kiroletan:

-  -Ekimena hartuko dugu, nazioartean gure Herriaren nortasunaren eta baloreen erakus leho izango den eta goi mailan arituko den emakume zein gizonezkoen txirrindulari taldea osatzeko.
-  -Ekimena hartuko dugu, nazioartean gure herriaren nortasuna eta baloreak hobekien isla ditzaketen kirolak sustatzeko eta horiei zuzenduriko neurriak garatzeko: mendia esaterako.